



BAKARRIZKETEN ASTEBURUA TOLOSAN

'Monologoka' ekimena antolatu du Udalak ostiraletik igandera. Lau saio izango dira Leidorren eta Fronton kafetegian > 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-05-20

VIURTEA 1.438. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IKUSI... MENDIZALEAK

TOLOSALDEA 2.825 mendizalek hartu zuten parte Aralarko Adiskideek antolaturiko XIV Orduko Ibilaldian

«**GUSTURA**» Festa giroa izan zen nagusi eguraldia lagun izan zelarik; ez zen ezbehar larririk egon 4-5



Giro bikaina egin zuen herenegun mendian gora eta behera egiteko. Irudian, mendizaleak ibilbidearen une batean. HITZA

malen 
Hernani kalea 8, Donostia

elena miro®



Bakarrizketez beteriko asteburua Leidorren eta Fronton kafetegian

Kultura » 'Monologoka' ekimena antolatu du Udalak estreinakoz; ostiraletik igandera lau saioa izango dira.

INIGO TERRADILLOS

Kultur proposamen berriaz gozatzeko aukera izango da asteburu honetan Tolosan, *Monologoka*, hain zuzen. Izenak berak dioenez, bakarrizketez osaturiko egitaraua antolatu du Udalak, ostiraletik igandera arte, haur da, hilaren 23tik 25era. Bakarrizketa saio hauek Leidor aretoa eta Fronton kafetegian izango dira.

Andoni Iturzaeta Udaleko kultur zinegotziak atzoko aurkezpenean azaldu bezala, «kultur eskaintza nola aberastu aritu garaztertzen, eta ideia egokia iruditu zaigu bakarrizketez osaturiko zikloa antolatzea asteburu batean». Maila handikoak izango direla eta arrakasta handia izango dutela espero dutela gaineratu zuen Iturzaetak; «lehenengo urtea izateko eskaintza borobila prestatu dugu, eta jendeari asko gustatuko zaioala uste dugu».



Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia, *Monologoka* kartelarekin. I. T.

Lau saioz osaturiko egitaraua

Hiru bakarrizketa saio Leidor aretoan izango dira: *El Lazarillo de Tormes* (Tormesko itsumutila, Rafael Alvarez, *El Brujo*) ostiraletan izango da, 20:30ean; *Sommer jaunaren istorioa* (Jose Ramon Sorroiz) larunbatean izango da, 20:30ean; eta *Los monologos de la vagina* (Alu jakintsuen mintzoa, Maite Merinoren Konpainia) igandean, 20:00etan.

Laugarren saioa, berriz, Fronton kafetegian izango da; kasu honetan, Asvinenearen ekimenez *Stand Up Comedy* izenarekin Ruben Arrospide tolosarra eta Dani Perez kataluniarra ariko dira, larunbatean 23:30etik aurrera.

Bonuak 20 eurotan

Leidorren izango diren bakarrizketa saio bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko da, baina bonuak ere jarriko dituzte, eta horiekin 20 euroren truke 3 ikuskizunak ikusteko aukera izango da. Sarreak, Servikutxan, Telekutxan, www.kutxa.net web orrian edota Leidor aretoko leihatilan eskura daitezke. Fronton kafetegian larunbatean izango den ikuskizunari dagokionez, doan izango da.

» EGITARAUA

'El Lazarillo de Tormes' (Tormesko itsumutila)



■ **Antzezlea.** Fernando Fernan Gomezen bertsioa antzeztuko du Rafael Alvarez *El Brujo*-k. 1988. urtean, Jose Luis Alonso de Santos, Gerardo Malla eta Jesus Cimarroekin Pentacion antzerki ekoizte-txea sortuko du, eta 1995ean M. Jose Norterekin *El Brujo* Produktzioak sortuko du, eta antzezanak eta ikus-entzunezkoak antolatu eta ekoizteaz arduratzen dira. 1969. urtetik hainbat lanetan hartu du parte, antzele bezala, protagonista bezala edota zuzendari bezala. 1986. urtetik antzerkiaren gain, zinean nahiz telebistan ere egiten du lan.

■ **Lana.** Rafael Alvarez ez duela inoiz antzezan hau albo batera utziko dio: «Asko gozatzan dut lan

hau antzezte; itsumutilak eta biok eman duguna baino askoz ere gehiago jaso dugu lan honekin». Marjinazioaz ari da lana, gosea eta haurtzaroko bizipen latzen inguruan. Itsumutila eta Hirugarren Munduko haurren arteko paralelismoa nabarmena da, orekarik gabeko munduaren adierazle. Anbizioa eta botereaz ari da.

■ **Eguna eta lekua.** Ostiraletan, 20:30ean, Leidor aretoan.

'Sommer jaunaren istorioa'



■ **Lana.** Patrick Süskind idazle alemaniarak (*El perfume* nobelaren egileak) idatzitako lanaren antzerkirako egokitzapena da, eta 13 urtez katalanez ikusgai egon ondoren, euskarazko tauletara iritsi da. Lourdes Oñederrak euskaratu du *Sommer jaunaren istorioa* eta Txalo konpainiak taularatu du. Katala-

nezko bertsioan bezala, Xicu Masok zuzentzen du euskarazkoa. Oñederrak haur, gazte nahiz helduentzat dela liburua azpimarratzen du: «Sintaxia, hizkera eta narrazioa umeen modukoa dira; hori da lanaren magia zati bat, ume batak bezala kontatuta dagoela, baina heldu baten ikuspegitik».

■ **Antzezlea.** Jose Ramon Sorroiz da protagonista, eta haurtzaroa eta nerabezaroko pasarteak bizi-bizi gogora ekartzen dituen pertsonaia antzezten du. Hain zuzen ere, bera izan zen Lourdes Oñederrari Süskind-en liburuz hitz egin ziona, «liluratuta». Protagonista heldua da, baina umearen ere egingo du zenbait unetan, horregatik, Sorroizen ustez, «umeentzako ez izan arren, beraie ere gustatuko zaie».

■ **Eguna eta lekua.** Larunbatean, 20:30ean, Leidorren.

'Los monologos de la vagina' (Alu jakintsuen mintzoaz)



■ **Lana.** 200 emakume baino gehiagorekin hitz egin ostean sortutako testua da. Gazteak, helduak, etxeoandreak, langabtuak... era guztietako emakumeen bizipenez ari da. Eve Ensler aktore eta idazle amerikarra da egilea, eta arrakasta handia izan du. Gazte-larrazko bertsioa, Victor Kremerena, 2000. urteko otsailen estreinatzen zen, eta ordutik 1.500 antzezan baino gehiago izan dira, eta 900.000 ikusle baino gehiago izan ditu.

■ **Antzeleak.** Maite Merinoren Konpainiak ekoiztearekin bigarren ekoizpena da, eta Maite Merino eta Fanny Condado dira aktoreak eta Antonia Garcia zuzendaria.

■ **Eguna eta lekua.** Igandean, 20:00etan, Leidorren.

'Stand Up Comedy'

■ **Ekimena.** Asvineneak antolatuta, *monologoka*-ren jarduera osagarria da. Bi bakarrizketa saioz gozatzeko aukera izango da.

■ **Ruben Arrospide.** Tolosarrak bakarrizketa saioa eskainiko du. Irungo Bakarrizketen Lehiaketa irabazi zuen 2006. urtean, eta pasa den urtean Donostiako Gazte Antzerkian bigarren saria eskuratu zuen.

■ **Dani Perez.** Bartzelonakoa da. *El Club de la Comedia*-ko irabazlea izan da.

■ **Eguna eta lekua.** Larunbatean, 23:30ean, Fronton kafetegian.

Laburrak

Jai Batzordearen bilera, bihar, Kultur Etxean

AISIA • Bihar, 18:30ean, jai batzordearen bilera izango dela jakinarazi dute. Kultur Etxean izango da, eta sanjoanek antolatzea izango dute helburu.

Ibilaldirako autobusak antolatu ditu Galtzaundik

AISIA • Zornotzan ospatuko den ibilaldirako autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea egoitzan (Nafarroa etorbidea 6 behe, Tolosa), 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Sahararen aldeko elkarretaraztea, gaur

GIZARTEA • Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi elkarrekin antolatutako *Maiatza Borrokan* jardunaldien baitan, gaur, borroka armatuaren hasieraren 35. urteurrenaren onurarako, elkarretaraztea deitu dute Tolosako Plaza Zaharrean, 20:00etan. *Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat* lelopean egingo dute elkarretaraztea. Bestalde, abian da aurtengo udan haur sahararrak etxean hartzeko kanpaina. Izena emateko edo informazio gehiagorako, Udaleko gizarte zerbitzuen sailera (943 69 74 60) edo Tolosaldea Sahararekin (645 71 07 89) elkartera hots egin behar da.

ISO 27001 ziurtagiria jasoko du LH institutuak

GIZARTEA • Tolosaldea LH Institutuak ISO 27001 ziurtagiria (Informazioaren segurtasuna) jasotzeko ekitaldia izango da bihar. Ekitaldia 13:00etan hasiko da, eta bertan izango dira, besteak beste, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Euskadiko Aenor-eko zuzendaria Luz Empanantza, Lanbide Heziketako zuzendaria Josu Aboitiz eta Etengabeko Sailordeko zuzendaria Irgone Azpiroz.

II. Ekintzaile Eguna izango da gaur, Idiakez jauregian

EKONOMIA • Tolosaldea Garatzenek antolatuta, Tolosaldeko Ekintzailearen II. Eguna izango da gaur. Idiakez jauregian izango da ekitaldia 20:00etan hasita. Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehen idazlearen aurkezpenaren ostean, Ekintzaile izatearen erronka hitzaldia emango du Enpresa zientzietan dokortetua den Iñazio Irizarrek. Ondoren, Eskualdeko 2007ko ekintzaileei omenaldia egingo diete, eta azkenik, mokatutsoa hartzeko aukera ere izango dute ekitaldian egongo direnek. Tolosaldea Garatzenen Autolaguntza zerbitzuak lagunduta 39 enpresa sortu ziren pasa den urtean.

Haur eskolan izena emateko epea hilaren 30era arte zabaldu dute

Altzok » Irailetik aurrerako egonaldiaren prezioak ere zehaztu egin ditu Haur Eskolak Partzuergoak.

ERREDAKZIOA

Altzoko haur eskolan haurren izen-emate epea zabaldu egin zuten atzo. Beraz, gurasoek aukera dute dagoeneko seme-alaben izena emateko, hilaren 30era arte (ostirala), Haur Eskolak Partzuergoak jakitera eman duenez.

Irailetik aurrera ordaindu behar dena hau da: 5 ordu edo gutxiago egongo direnek 145 euro; 5 ordu gutxiago egongo direnek 190 eta egokitza-aldia, 135 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.haurreskolak.net webgunean lor daiteke, edo bestela Altzoko Udaletxean.

Gaur kultur batzordearen bilera irekia izango da iluntzean

Amezketan » Aurretik festa batzordea elkartuko da balioanitzeko gelan. Bihar, berriz, ongizatekoena dago.

ERREDAKZIOA

Amezketan gaur, Kultur batzordea bildu egingo da 20:30ean balioanitzeko gelan, baina aurretik, Festa Batzordea elkartuko da 20:00etan. Beti bezala, bilera hauek irekiak dira eta edozein herritarrek har dezake parte.

20:30etik aurrera ondorengo gaiak jorratuko dituzte: Kultur eskaintzak erabaki; udarako udaleku irekiak eta historia eta ondareari buruzko informazioa emango dute.

Bihar gizarte ongizate eta ingurumen batzordea

Gizarte ongizate eta ingurumena batzordea, berriz, bihar batuko da 20:30ean, hauek ere Amezketako balioanitzeko gelan. Bertan, Jose Luis Urdangarin (Tolosaldeko Garatzen) informazioa eskainiko du. Ur kudeaketa egokienaz ere ariko dira. Udalen garapen teknika-riaren beharra baloratuko dute eta Enirio-Aralarko basoen balorazioa ere egingo dute.

Atzo hirigintza eta obretarako batzordea elkartu zen, eta bertan, intereseko gaiak jorratu zituzten herritarrek.

Hitza Pilota Txapelketako partidak izango dira gaur, Bidegoianen

N. URBIZU

Gaur V. Hitza Pilota Txapelketako norgehiagokak izango dira kade-teen mailan Bidegoianen eta 19:00etan hasita, eskuz banaka. Bereziartu eta Ariztimuño lehen partidari; gero, Labaka eta Jauregi; Iribarren eta Maiza eta bukatzeko, Urrutia eta Juanenea.

Bihar nagusien eta jubenilen txanda izango da: Beotibarren seniorrak, 18:00etatik aurrera ariko dira. Errea-Baez I eta Iraola-Lope-tegi bikoteak; Baez II-Landiribar eta Larrañaga-Uzkudun; Beitia-Senperena eta Elurbe-Kantxo.

Alegian jubenilak 19:00etan hasiko dira Lizaribar-Albisu eta Alberdi-Perosanz; Olaetxea-Arzelus eta Kortabarria-Arretxabaleta; Otamendi-Murgiondo eta Bilbao-Esnaola eta azken partidari Ezkurdi-Zubiria eta Sukia-Azkunaga bikoteak izango dira.

Laburrak

Aspek pilotako finalerdia datatza aldatzea eskatu du

LEITZA » Aspek Buruz Buruko Txapelketako Gonzalez-Barriola finalerdia atzeratzeko eskatu die enpresen ligari. Igandean da jokatzekoa eta Gonzalezek zuntz haustura egin zuen duela hamar egun. «Nik uste nuen baino lesio larriagoa da. Bizkarreko gogorra da», zioen mediku azterketaren ondotik Gonzalezek. Abel Barriola irabaziz gero, Bengoetxea VI.aren aurka ariko da finalean.

III. Berts Paper Lehiaketarako izen-ematea

ALEGIA » III. Berts Paper Lehiaketa antolatuko du Alegian Zazpi Astoren Gaienean bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean entregatu daitezke edo zazpiastorengainean@gmail.com helbidera bidali. Informazio gehiago eta baldintzak helbide berean lor daitezke. Lanak entregatzeko azken eguna ekainaren 6a izango da.

Afektu-doluar buruzko hitzaldia, astelehenean

ALTZOK » Altzoko Udaletxean, intentsitate emozionalagatik estres handia eta gainditurik egotearen sentimena sortzen duten zenbait gertaeren aurrean, afektu-dolua egoki bideratzen jakitea duen hitzaldia izango da. Berezi 3. adinekoentzat da baina edozein joan daiteke. Hau, astelehenean izango da 18:00etan, udaletxean. Antolatzailerak Udala eta Kutxa dira.



Ginkana urtero egiten duten ekitaldia da. Aurtun ere plazan izango da haurrentzako ekitaldia, larunbatean. N.U.

IV. Kirol Asteari gaur helduko diote, 'Aire-Airean' proiektioarekin

Alegia » Asteazken zehar kirolari eta osasunari lotutako hiru hitzaldi izango dira. Larunbatean, kirola egiteko txanda da.

NEREA URBIZU

Alegian IV. Kirol Astea antolatuko dute eta gaur bertan helduko diote. Egundari hauetan kirola modu askotan jorratuko dute: hitzaldien bidez, proiektio bidez, eta praktika eginez, noski. Gaur, hasiera emateko, 19:00etan *Aire-airean* proiektioa izango da Jose Ramon Agirrekin Alegiako Kultur eta Kirol Etxean. Agirre etaundarrak Himalayaren gainetik hegaldia egin zuen parapentez eta orduan sentitu zuen hori islatzen saiatuko da proiektio honetan.

Al filo de lo imposible saioarekin joan zen ataundarra joan den urtean horretarako, gainetik parapentez iazotzeko eta ikusteko hango paraje haiek. Mendizalearen ahotik entzun ahal izango dira azalpenak eta sentimendua, irudi ikaragarriez lagunduta.

Bihar, berriz, ordu eta leku berean, *Eskola-kirola baliabide hezi-*

tzailegisa izeneko hitzaldia antolatu dute, Luis Mari Zulaika hezitzaile fisikoarekin. Bertan, eskolan heziketa fisikoak fisikoarengan zein psikikoarengan ere duen garrantzia hitz egingo du.

Asteko azken hitzaldia, berriz, Inaki Arratibel medikuaren eskutik izango da etzi. 19:30ean hasiko da hau eta Lehen sorospen eta lesioen tratamenduaz ariko da.

Larunbatean kirola egitera

11:00etan ginkana prestatu dute herriko plazan. Umeentzako da ekitaldia eta bizikletarekin hainbat proba egiteko aukera izango dute. Horretan aritzeko, bizikleta eta kaskoa eraman beharko dituzte umeek.

Arratsaldean Udaberri Txapelketako partidak izango dira frontoian: norgehiagoka guztiak infantilen mailakoak izango dira, 16:00etan hasita, guztira 9 partida.

Intxuraren festa, ondoren

Ez da hor bukatuko eguna, Intxurere KKEK denboraldi amaierako festa izango baitute herriko plazan, zahagiardoa sagardoarekin. 21:00etan bilduko dira denak bertan, eta sariak banatuko dituzte

futbol eta areto futbol taldekoen artean. Lurraldekoako bigarren mailara jaitsi dira, baina «espero zuten», oso maila gogorra baita lehenengo, baina bigarren mailan, beti bezala puntako postuetan ariko dira seguru. Giro polita sortzen da herriko plazan egun horretan.

Arratsaldean, aurrerako finkatuko dute ordutegiaren baitan, saskibaloi txapelketa izango da: Basket 3-3ren aurka, hain zuzen. Larraitz auzoko plazan jolastuko dituzte partidak eta parte-hartzailek herritarak izango dira.

Igandean mendi ibilaldia

Alegiako Mendi Asanbladak hila-betero antolatzen du mendi ibilaldia eta maiatzekoa Aizkorriara egokitu da. 08:30ean abiatuko dira eta autobusa hartzeko Bideberrietara azaldu beharra da igandean. Datoren astean ere beste bi hitzaldi izango dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar duzu. Deitu telefono honetara: 685 22 70 58.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu: 665 70 86 35.

Tolosako Udala

ERREDAKZIOA


Tolosako Udala, 2008ko maiatzaren 18an egindako lehen lehenengo erabakian Tolosako Udalen R. O. D. 15.1. Zuzendaritza www.bertso-hitzaldia.net helbidera bidaltzeko erabakia hartu du.

Eskola-kirola baliabide hezitzaile gisa izeneko proiektioa antolatu du Udala. Proiektioa antolatu du Udala. Proiektioa antolatu du Udala.

Ez da hor bukatuko eguna, Intxurere KKEK denboraldi amaierako festa izango baitute herriko plazan, zahagiardoa sagardoarekin. 21:00etan bilduko dira denak bertan, eta sariak banatuko dituzte

Hiztasuna bertan bertan ezarritako joko da. Hitzaldia ordu bakoitzeko informazioa emango du.

Tolosa, 2008ko maiatzaren 18an.
KALATA.



Golezan goiz abiatu ziren mendizaleak igandean. Tolosatik hortik Uli mendira igo ziren, eta ondoren, Gorritira bideratu. Hemendik beriz, Lekunberriera ailegatu arte jerratu zuten. 11/17/24

MENDIZALEEN FESTA

Kirola » 2.825 lagun bildu zituen herenegun Aralarako Adiskideak mendi elkarteak antolatutako XIV Orduko Mendi Ibilaldiak.

EZIZIA / KLATIBURU

Oraindik gusa zela joko zuten iratzar-gailuak 2.825 lagunengatik. Mendiko arropa eta motzila hartu eta berazubintan hurbildu ziren guztiak. Egun luzea zuten aurretik, 14 orduko ibilaldia, bain zuzen ere. Orduan ekin zitoten guruziek 68 kilometroko ibilbidea, 6500 metrik aurrera minuturo 100 lagun inguru abiatu zirelarik. Antolatzaileek ahalik eta txukunen eta azka-

rren jarri nahi zituzten mendizale guztiak martxan. Eta bertan ere lotu zuten, ez baitzen jende pilaketarik sortu. Lehen zatia ilupean egin zuten mendizaleak eta inguruko baserrien oilararekin batera heldu zuten argitasuna, Uliara bidean. Eguraldia lagun izan zuten eta ingurpe- nek aurkakoa bazitoten ere, ez zuten euririk egin ibilbide guztiaren zehar. Pozik ziren, beraz, antola-

tzale zein parte-hartzaileak. «Mendirako gira bikaina, lainotuta eta freskoa», zioen jende gehienak.

Gorritin indar berritzeko lehen aukera izan zuten, bertan atondu baitzuten lehen anoa gunea, lan- ja eta urarekin. Goerritik eta Lekunberri arteko «bide lasaia»-on- doren, Lekunberri berritzearekin zuten zer jan eta zer edan, 3 kontrol-gunearekin batera.

Lekunberriko anoa gunea atze- an utzi eta orduntze hasten zen mendizale eskorren itzira. Ibilal- diaaren zatirik gogorrena dena, San Miguelera igotzea, bain zuzen ere. Lokotzaren behar zirenen askok baina mendizaleen zorioenerako bidea nahiko lehor zegoen.

Atako baitara ederra igaro eta azken aldira zain zegoen. Baina dagoneko entzungai ziren San Miguelen zain zuzen ikusleek animo-ibilak. Horiek «maltzulo berezia» ematen die mendizaleei eta festa giroan margiltzen lagun- tzen du, dagoneko orduak era- gindako minikis-ia nahatzen dituz- telarik. San Miguelen askok zain izaten dituzte lagun zein senideak. Hala ere, zerbait jan eta «okorrena egin» du, orain modian behar- esan ez ekiten diote berriro Igarat- zaninoko bikort.

Igaratzaiko anoa gunean ere, 5. kontrola, ikuse ugari bildu zen. Azken zati gogorra zuten aurretik ibiltariek, Mimak. Hankak gogor izan behar omen dira zati honetan eta horrexegatik askorentzat go- gorra izaten da jaisiera, dagoneko 10 ordu daramatze-eta. Baina

TOLOSASKO INMAKULADA IKASTETXEA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ERIZAINITZA LAGUNTZAILEA
- FARMAZIA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- DIAGNOSI IRUDIA
- ERRADIOTERAPIA
- OSASUN DOKUMENTAZIOA
- GIZARTE INTEGRAZIOA
- HAUR HEZKUNTZA

IZEN EMATEA: Maiatza - Ekaina

Kondeko Aldapa, 5 - B 20400 TOLOSA
Tel. : 943-673629 www.inmakuladatosola.com

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK


GIPUZKOAN
Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: Andoaino, Martin Ugalde Kultur Parkea
Onduz: aratsaldeko buetan.

BIZKAIAN
Eguna: maiatzaren 23a
Tokia: Leizako campuseko BERRITUTAKO ERABINA (Reformado) 1. gelan
Onduz: eguerdiko ordu bitartean

ARABAN
Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: BERRIKO Gasleko egolzan, Bizenta Mogel 6. behoa.
Onduz: goizeko bederatzietatik aurrera.

NAFARRONAN
Eguna: maiatzaren 20a
Tokia: BERRIKO Buteko egolzan, kabeko monasterioa 45. eskualde eskalera 13. eskalera.
Onduz: goizeko 10:00etan.

Probata curriculuma ekarri behar da



Amekzetara ailegatu da dogoneko helmuga buruan zuten mendizaleek. Azken indarrak hartu eta Akegariara. Bertan, itzuruokoen zerbeza freskoa edan eta azken txanpa, Tolosarainoko bidagorria. Lana, esfortzua, nekea, ... bakatu da.

Arazorik gabeko ibilbidea
Edizio berritik izan da eta Gurutze Gorriak jakitera eman duenez, asistentzia gutxi egin behar izan zituzten. «Apatia ingurua, hasi bezain prentxo, lagun bat erietxera eman zuten, koliko nefritikoarekin, eta Atako bularan pure bat lagun zain finarekin laguntza eman zite», azaldu du Jon Aldanondo Aralarako Adiskideak elkarteko lehenburuak.

Hainbat datu
Izena eman zuten 2.825 mendizaleen artean 509 emakumezkoak izan ziren. «Urteik urtera gero eta emakume gehiago ateratzen dira», zioen Jon Aldanondok. Oraisanlik ere ez dituzte ailegatu zirenen datu zehatzak, baina «%5a inguru izan ohi da soilik». Zerbait ofizialdik hitzori ari dira oraindik elkarteok baina hainbat datu bitxi jaso dituzte dagoneko: 22.200 botila ur, 150 barra ogi, 26.000 es- nek, 800 litro salka eta 1.360 kilo laranja prestatu zituzten. Guztira 220 lagun inguru aritu ziren lanean.

Jende asko gurtzineko denbo- ratik behera helmugaratu zirela ere aitoru dute elkarteak. «1600ta aldera jendea jada Berazubint- zegoen; azkenean, berri, 21:30 inguru heldu ziren». Gai honen ingur- tan «hasarretan ketagin» behar- ko dute aitoru dute elkarteak. 14. edizioa bukatu berri da eta lau urte itxaron behar horretarako... Zorionak mendizale guztiak!



Lekunberriko San Migelera igo ziren; jarrain, Igaratza eta hemendik Amekzetara jaisi ziren. Azkenik, berritro Tolosara itzultzeko. 11/17/24

NEBES BURUA HIRI NEK

SHOAFZEDO PRETTI

mm

Zinema euskaraz berria rekin

Maiatzaren 24an

Jima DVD formatuan

DEABRU GUZTIEN URTEA

Maiatzaren 27an

Jima DVD formatuan

+6,95€

OHARRA: Irtegiak bukatu arteko eskaintza

Euskal Herrian zehar azken mendi irteera egingo dute igande honetan

Ibarra » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeek Aralarra antolatu dute mendi irteera, ondoren bazkaria egingo dute.

ASIER IMAZ

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek zazpigarren eta azken mendi irteeran izena emateko zerrendak jarri dituzte Ibarako Zubiaurre eta Tolosako Denak tabernetan.

Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz ekimenaren barnean Gipuzkoan zehar egingo dute azken txangoa maiatzaren 25ean, igandean.

Mendi irteera gidatua eta ondoren bazkaria

Zerrendetan izena ematen dutenek mendiaz gozatzaz gain bazkaria ere egingo dute igandean.

Irteera puntua bi lekutan jarri dute antolatzaileek: 08:00etan



Nafarroarako irteeran, hirugarrengoa, bizikletaz ibili ziren Bardeetan. ASIER IMAZ

Ibarako plazan eta 08:15ean Tolosako Kultur Etxearen aurrean. Bigarren puntu honetan autobusa hartu eta Lizarrustira joango dira. Adu baten laguntzaz Larraitzera joango dira 4 orduko ibilbide «la-

saia» eginaz. Bidean, monumentu historikoen inguruko argibideak eskainiko ditu Orkatz Goenaga adituak. Behin Larraitzen, ekimenaren azken irteera izanik bazkaria egingo dute.

Mendi-urte berriaren zain

Azken irteera egingo dute igande honetan baina jadanik hurrengo mendi ekimenak buruan dituztela aitortu dute antolatzaile taldeko kideek.

L Laburrak

Lur Korta ipuin kontalaria bihar 17:30ean

IBARRA » Liburutegiak antolatuta bihar 17:30ean ipuin kontalaria egingo da Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Lur Kortak betiko ipuinak kontatuko dizkie 2-4 urteko haurrei, besteak beste, Txanogorritxo eta hiru txerrikumeen gorabeherak entzungo dituzte kultur etxera gerturatzen diren txikiek.

Zergen ordainketari buruzko informazioa

IBARRA » Udalak herritarrei jakinarazi dienez, ekainaren 30a bitarte, 2008ko Landa zein Hiri izaera Ondasun Higiezin zergen ordainagiriak ordaindu ahal izango dira. Ordainketak edozein aurrezki kuxta edo banketxetan egin daitezkeela ere jakinarazi du Udalak.

Festa Batzordearen bilera bihar 20:00etan

IBARRA » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome jaien antolaketaekin jarraitzeko bihar 20:00etan bilera aretoan Festa Batzordearen bilera egingo du eta jaien antolakuntzan parte hartu nahi duten herritar guztiei bertara agertzeko deia luzatu die.

Pilota mahai-ingurua gaur, Aste Kulturalean

LIZARTZA » Udal Alternatiboak antolatuta atzo hasi zen Aste Kulturala. AHTren inguruko hitzaldiak eman zion hasiera eta gaur 20:00etan pilotaren inguruko hitzaldiarekin jarraituko dute. Mahainguruan pilotariak eta irrati esatariak egingo dire Gunea aretoan. Pilotarien artean Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea, Asier Olaiola, Mendizabal eta Mikel Olaetxea egingo dira. Hauei Iñaki Elorza esatariak lagunduko die.

Ongi nola erosi aztertuko dute hitzaldian

OREXA » Uli Mankomunitateak eta Kutxa Ikasgelak antolatuta osasunari buruzko hitzaldia egingo da maiatzaren 29an Orexan 18:00etan. Bertan ongi nola erosi behar den aztertuko dute, osasuna kontuan izanik beti ere.



«Herriko hezkuntz proiektuaren alde»

IBARRA » Uzturpe Udal Haur Eskola eta Ikastolako Errektore Kontseiluko gurasoek deituta elkarretaraztea egin zuten atzo udaletxearen aurrean. «Herriko hezkuntz proiektuaren alde» elkartzeaz gain, Udalak «hartutako erabakia atzera botatzea» eskatzen jarraitzen dutela azaldu zuten gu-

rasoek, «izan ere, partzuergoan sartzeko presarik ez dago, hurrengo urteetan har daitekeen erabakia» dela azaldu zuten. Kanpoan elkarretaraztea zegoen bitartean udaletxean 2 urteko gelaren inguruan hitz egiten aritu ziren Udal ordezkariak eta Errektore Kontseiluko kideak. ASIER IMAZ

H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



IMANOL MURUA ARREGI
Jauna
Zarauzko alkate ohia

-Goian bego-

Beti zintzo eta maitasunez herriaren alde lanean
Gogoan izango zaitzugu

Zarauzko Udala

ZARAUZ
2008ko maiatzaren 20a

Gogoetarako tartea topaketaren azken egunean

Leitza » Herenegun goizean Lertxundik eta Urbizuk hitzaldia eskaini zuten eta arratsaldean kantuzaleek kantuak abestu zituzten.

NAIARA GARZIA

Atzo amaitu zen Euskal Kantarien III. Topaketa bertan parte hartu zuten abeslarien emanaldi batekin. Honela, asteburu osoan zehar gogoetarako eta dibertsiorako tartea izan dute Leitza. Oskar Estanga Euskal Kantuzaleen Elkarteko koordinatzaileak herenegun azaldu zuen bezala, «Leitza aukeratu dugu oso herri kantuzalea delako».

Atzo topaketaren bigarren eta azken eguna izan zen, eta Benito Lertxundik eta Gorka Urbizuk mahai-ingurua eskaini zuten, *Euskal kanta gintzaren historiaren laburpen txo bat, hitzez eta kantuz izenekoa*. Larunbatean bezalaxe, Aurreran bazkaldu zuten topaketara kanpotik hurbildu ziren kantuzaleak, eta ondoren, emanaldian abestu zituzten kantuak prestatzeko tartea izan zuten, larunbatean bezalaxe.

Mahai-ingurua

Oskar Estangak egin zituen moderatzaile lanak, eta Lertxundi eta Urbizuri zenbait galdera egin zizkien. Zinea bezperan baino gehiago bete zen, 50 lagun inguru baitzeuden. Estangak egindako galderen bitartez artisten indibidualitatea eta hauek gizartearen duen garrantzia aztertu zituzten,

besteak beste, beraien hastapen-etatik hasita. «Ni hasi nintzenean helburua diska bat grabatzea zen», azaldu zuen Lertxundik. *Ez dok 13* mugimenduaren inguruan ere mintzatu zen. «Hor filosofia bat sortu zen, garbi genuen ez zela izan denbora labur baterako, hai-zeak eramanen zuten zerbait, hau da, ezerez hartatik zerbait mar-txan jarri behar genuela». Ildo horretatik jarraituz, urteak igaro diren arren, Urbizuren ustez «musikaren funtzio sozialak hor jarraitzen du, gero egiten zara kontzientzia horretaz, duzun ahalmen bat da».

Besteak beste euskal kanta zer zen definitzen ere saiatu ziren, eta bi belaunaldi ezberdinen testigantza hor utzi zuten. «Gu euskaraz hasi ginen abesten, baina bagenituen modeloak jarraitzeko. Gure kantuak abesten 2.000 gazte ego-tea gauza handia da, baina nondik heldu den ere garrantzitsua da», azaldu zuen Urbizuk. Lertxundik, berriz, beraien hastapenak azaldu zituen. «Guk ezerezetik hasi behar izan genuen, ordura arte trikitilariak eta bertsolariak besterik ez baitzeuden».

Topaketa honekin, beraz, amaitu da Kultur Asteko lehenengo asteburua eta aste honetan zehar hainbat ekitaldi izanen dira.



14:30ak aldera amaitu zen Gorka Urbizuk eta Benito Lertxundik eskainitako mahai-ingurua. N. GARZIA



Larunbatean kantu-jira egin zuten herrian zehar eta tabernetan geldialdiak egin zituzten. N. GARZIA

'Euskaltasunerako kantuak duen garrantzia', mahai gainean

Leitza » Kantuzaleek larunbatean egindako bileran kantugintzaren inguruko hainbat puntu jorratu zituzten.

N. GARZIA

Juan Velez Euskal Kantuzaleen Elkarteko ordezkariak III. topaketaren inguruko balantzea egin du. Anje Duhalderen kontzertuari dagokionez, uste baino jende gutxiago bertaratu zela adierazi du. «Partaide aldetik bagenekien jende gutxi etortzekoa zela, baina pentsatzen genuen Leitza bezalako

herri batean Duhalde bezalako abeslari bat etorrita jende gehiago egonen zela. Beharbada ordutegia ez zen egokia eta hori kontuan hartzekoa da hurrengo baterako». Gainontzekoan orokorrean «oso gustura» gelditu direla azaldu du Velezek, bai zinean antolatu dituzten beste hitzaldiek, baita kalean topaketak izan duen erantzunarekin ere.


Kantuzaleen arteko topaketa

Larunbatean, Anje Duhalderen hitzaldia eta gero kanpotik etorritako kantuzaleek topaketa egin zuten. «Elkar hobeto ezagutzeko egin genuen, batzuk gipuzkoarrak

baitziren, besteak nafarrak... Hasiera batean aurkezpen txiki bat egin genuen eta gero elkarte bezala gai batzuk jorratzen hasi gara eta hauen inguruan hausnarketa egiten aritu ginen. Topaketak egiten ditugu, baita txapelketak ere, baina ez dago hari bat guzti hori lotzen duenik. Orain hari hori bilatzen hasiak gara». Velezen ustez, haria teorikoa izan daiteke, baina baita praktikoa ere, hau da, elkarte bezala zerbait eskaintzea, eta eskoletako adibidea jarri zuen. «Proposamen bezala gaia atera genuen eta harrirituta gelditu ginen jendea ideia horrekin pozik zegoela ikusita. Gehienbat ikusten dugulako ba-

tzuk kantatzen badakitela, baina oinarrian zerbait behar dutela». Topaketan bildu zirenen kezka ere azaldu du Velezek: «nola txertatu gizartearen kantuak duen garrantzia, ez bakarrik modu ludikoan, baizik eta euskaltasunerako

kantuak duen garrantzia. Oinarri kultural bezala ibaiak badakigu zeintzu diren, edo jakin beharko genuke, baina baita kantuak ere, edo behintzat Euskal Herriak baduela tradizio handi bat, kantutegi oso zabala eta berezia».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



17°
10°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.OSTARTEAK	
BEROENA	19°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Irati Pagola Zelaia (Tolosa). Zorionak printzesa! Atzo 2 urte. Ondo paaasa etxekoan partetik.



Urte askoan!

Timotea. Gure ama, amona eta birramonari, muxu goxoak bihotzez, familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Aritz Larreta Bereziartua (Amezketeta). Gaur 26 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Zorionak Karmen. Familiaren eta batez ere iloba Ane eta Haritzen partetik, muxu handi bat.

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Alegia.** IV. Kirol Astea: Jose Ramon Agirrerren *Aire-airean* proiektzioa Kirol Kultur Etxean 19:00etan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** *Autodeterminazioa eta Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat* kontzentrazioa Plaza Zarran 20:00etan.
■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa Udala

Musika eskolak aurrematrikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara

■ **Tolosa.** Ziklomotooren azterketa egingo dute Ferialekuan hilaren 26an eta 27. Txanda eskatu behar da Udaltzaingoa (943-675858).

Irteerak

■ **Ibarra.** Lizarrara irteera Bizi Nahi elkartearen eskutik hilaren 23an.

Izen-ematea, elkartean 30 eurotan (bazkide ez direnek 32).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.

Indianoene 1 20013 Donostia
Telf: 943 272 587 e-posta: zurriola@ikastola.net
www.barandiaranlizeoa.com

ZURRIOLA IKASTOLA

BATXILERGOA (eleanitza aukerarekin)

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Arteak

hazi nahi duten pertsonentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte parte-hartzeari buruzko hiru argitalpen eskaintzen dizkizu

Elizan edo zure elkartean doan jaso nahi badituzu, ondorengo bidak erabili ditzakezu izena emateko. Maitasun, ekarpen eta uztailan jasoko dituzu.

Deitu: 943 25 10 05 | Idatzi: partehartu@baketik.org | Sarri: www.baketik.org

Izena eman

Parte hartzen pertsona eta gizarte moduan hazten gara

Laguntza:

Arloak:

Buketik: Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa **kultura politik berria**